



BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN
ZIRRIBORROEN WEB-ZERBITZUAREN
ZEHAZTAPEN FUNTZIONAL ETA
TEKNIKOAK (V1.0.0)

Bertsioaren data: 2025/12/3

AURKIBIDEA

1 SARRERA	4
1.1 Dokumentuaren helburua	4
1.2 BEZaren autolikidazioen zirriborroen eremua	4
1.3 BEZaren autolikidazioen zirriborroa eskatzea, lortzea eta horretarako epeak.....	4
2 BERTSIOEN KONTROLA.....	5
2.1 Hasierako 1.0 bertsioa	5
3 LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK:.....	6
4 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN INFORMAZIOA	7
4.1 Edukia	7
5 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN ZERBITZUAK	8
5.1 Zirriborroa eskatzeko zerbitzuak	8
5.2 Zirriborroa biltzeko zerbitzuak	9
6 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN ZERBITZURAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK	11
6.1 Zirriborroa eskatzea.....	11
6.1.1 HTTP goiburua	11
6.1.2 Edukia	13
6.1.3 Erantzuna	13
6.2 Zirriborroa jasotzeko eskaera.....	13
6.2.1 HTTP goiburua	14



6.2.2 Erantzuna 15

7 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN ZERBITZUEN ERROREEN KUDEAKETA 16

7.1 Zirriborroen zerbitzuen erantzuna 16

7.1.1 HTTP erantzun-kodea (HTTP response status code) 16

7.1.2 HTTP eskaeraren edukia 16

8 ZERBITZUAREN DOKUMENTUAK 17

1 SARRERA

BATUZ jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen edo izaera juridikorik ez duten erakundeen zergak kontrolatzeko estrategia orokorra da, baita pertsona juridikoen eta espainiar estatuan egoiliarrek ez diren eta bertan modu iraunkorren kokatuta egonik lan egiten duten zergadunen jarduera ekonomikoak kontrolatzeko ere, betiere Bizkaiko PFEZri, Sozietateen gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga araubideari atxikita baldin badaude. BATUZ kudeaketa eredu berria da, eta bere helburuak jarduera ekonomikoen zerga-ordainketen kontrola gehitzea eta zergadunek betebeharrak betetzeko erraztasunak ematea dira.

BATUZek hiru oinarrizko elementu hauek ditu: fakturazioak kontrolatzeko TicketBAI sistema, Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuak (EEEL) izateko betebeharra eta zergadunei ematen zaien laguntza, zerga-betebeharrak bete ditzaten.

1.1 Dokumentuaren helburua

Dokumentu honen helburua da BEZaren autolikidazioen zirriborroak eskatzeko eta jasotzeko zehaztapen eta betekizun funtzional eta teknikoak definitzea, Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako makinaz makinako web-zerbitzuen plataformaren bidez.

1.2 BEZaren autolikidazioen zirriborroen eremua

BEZaren hiru hileroko autolikidazioa (303), hileroko erakunde-taldearen autolikidazioa (322) edo urteko autolikidazioa (390) egin behar duten pertsona fisiko edo juridiko eta erakunde guztiek, beren eragiketak EEELn erregistratuta badituzte, BEZaren autolikidazioen zirriborroak eskuratu ahal izango dituzte zirriborroen web-zerbitzuaren bidez.

1.3 BEZaren autolikidazioen zirriborroa eskatzea, lortzea eta horretarako epeak

BEZaren autolikidazioaren zirriborroa autolikidazioa egiteko epearen barruan eskatu ahal izango da, epea amaitu aurreko 2 egun baliodunetan izan ezik. Hau da, ezin da zirriborroa eskatu autolikidazioa egiteko azken egunaren eta aurreko egun baliodunaren artean (biak barne). Adibidez, autolikidazioa egiteko azken eguna asteartea balitz, zirriborroa eskatzeko azken eguna aurreko igandea litzateke.

Zirriborroa modu asinkronoan sortzen da. Eskaera erregistratu egiten bada, zirriborroak jasotzeko prest noiz eta zer ordutan egongo den adierazten du sistemak.

2 BERTSIOEN KONTROLA

2.1 Hasierako 1.0 bertsioa

Dokumentua sortzea.

3 LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK:

Agiri honen ondorioetarako, hauek izango dira definizioak:

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia.

Makinaz makinako web-zerbitzua (M2M): bi sistema edo gailu informatikoren edo gehiagoren arteko komunikazio automatizata, gizakien zuzeneko esku-hartzerik gabea. Zerbitzu horiei esker, hainbat makinak datuak trukatu eta ekintzak egin ditzakete urrunetik eta modu eraginkorren.

Bezeroen aplikazioa: BFArena ez den softwarea, Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako makinaz makinako web-zerbitzua erabiltzen duena BEZaren autolikidazioen zirriborroak lortzeko.

IFZ: Identifikazio Fiskalerako Zenbakia.

Zergapekoa: PFEZren araudiaren arabera jarduera ekonomikoa egiten duen pertsona fisikoa edo nortasun juridikorik gabeko erakundea; SZri lotutako pertsona juridikoa; edo lurralde espainiarrean egoiliarra ez den pertsona, bertan establezimendu iraunkor bidez jarduten duena eta EEEZri lotuta dagoena.

EEEL: Eragiketa ekonomikoen erregistro liburua

EEELren oharra: PFEZ, SZ edo EEEZ ordaintzen duten pertsona eta erakundeek beren jarduera edo jarduerak gauzatzean egindako eragiketa ekonomikoak.

BEZ: Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

HIE: Hileko itzulketen erregistroa.

PFEZ: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

SZ: Sozietateen gaineko Zerga.

EEEZ: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga.

REST (Representational State Transfer): software-arkitekturaren estiloa, bezero-zerbitzari komunikazioa egiteko. Horren helburua da web-komunikazioak modu sinple eta argian estandarizatzea.

JSON (Java Script Object Notation): datuak trukatzeko testu-formatu erraza.

HTTP response status code: bezero baten nabigatzailearen aldeko eskaera bati erantzuteko zerbitzari batek ematen duen zenbakizko kodea da. Egoera-kode horiek zerbitzariaren funtzionamenduari buruzko komunikazio azkar eta zehatza egiteko balio dute, bezeroaren eskaerari erantzuteko.

4 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN INFORMAZIOA

4.1 Edukia

Zirriborro baten informazioa hainbat iturritatik lortzen da:

- **EEEL** – Iturri nagusia. BEZa kalkulatzeko eragina duten erregistratutako oharrak.
- **Zentsuaren informazioa** – Zergadunaren zerga-egoera, esaterako, HIE, erakunde-taldea edo konkurtso-egoeran badago.
- **BEZaren aurreko aitortpenak** – BEZaren aurreko aitortpenetan agertzen diren datuak, BFAn egindako sarrera gisa.

Zirriborroak kalkulatzeko, jatorrizko informazio hori bildu eta zirriborroaren autolikidazio-motari dagozkion arauak aplikatzen dira: hiruhilekoa/hilekoa (303), erakunde-talde hilerokoa (322) edo urtekoa (390).

5 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN ZERBITZUAK

BEZaren autolikidazioen zirriborroak eskatzeko eta jasotzeko behar diren eragiketak eskaintzen dituzte, BFAk garatutako makinaz makinako web-zerbitzuen plataformaren bidez.

Zirriborroak banaka eskatu eta jasotzen dira, ez dago metodo masiborik.

Zirriborroa **izapide bati, ekitaldi bati, aldi bati eta zergadun bati** buruzkoa da.

Izapidea da BEZaren autolikidazioak BFAren Egoitza Elektronikokoan identifikatzea: hiru hilean behingo autolikidazioak (303), erakunde-talde hilerokoak (322) edo urtekoak (390).

Izapide bakoitzeko bi zerbitzu daude:

- Zirriborroa **eskatzeko** zerbitzua.
- Aldez aurretik eskatutako zirriborroa **jasotzeko** zerbitzua.

Beharrezkoa da **ziurtagiri elektronikoa** bat erabiltzea zirriborroen zerbitzuari eskaera egiteko. Ziurtagiri horren bidez, eskaera egiten duena autentifikatzen da (zergaduna bera edo haren izenean jarduten duen pertsona bat izan daiteke). Azken kasu horretan, beharrezkoa da ordezkaritza aldez aurretik Bizkaiko Foru Aldundiaren ahalordetzeen erregistro elektronikokoan inskribatuta egotea.

Ziurtagiri hori zirriborroen zerbitzuari egiten zaion https eskaeran sartu behar da, eta identifikatzeko eta erabiltzeko zerbitzuaren oinarri gisa erabiltzen da.

Hauek dira onartutako ziurtagiriak:

- Pertsona fisikoaren ziurtagiria.
- Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria.
- Enpresaren zigilua.

Eskaera jaso ondoren, BFAren sistemek automatikoki egiten dituzte **eskaera baliozkotzeko eta biltegitzeko prozesuak eta erantzuna sortzen dute** eskaeraren emaitzarekin.

Dei guztietan baliozkotuko da ziurtagiriaren autentifikazioa, zergadunaren identifikazio eta ordezkaritza zuzena izatea, eta izapidea eta aldia egokia izatea. Horretarako, datu hauek eman behar dira beti:

- Zergadunaren identifikazioa: IFZ eta izen osoa edo sozietatearen izena.
- Izapidea prozedura eta datu-orri bidez identifikatzea.
- Datu garrantzitsuak: ekitaldia eta aldia.

Bezeroaren aplikazioak deiaren erantzuna jaso behar du, dokumentu honetan deskribatutakoa kontuan hartuta.

5.1 Zirriborroa eskatzeko zerbitzuak

Izapide bakoitzeko zerbitzu bat dago, eta zerbitzu horrentzat sor daiteke zirriborroa: BEZaren hiru hilean behingo autolikidazioak (303), erakunde-talde hilerokoak (322) edo urtekoak (390).

Dei guztiek zerbitzuak behar dituen datuak eman behar dituzte, baita zirriborroaren informazioa zein **hizkuntzatan** (euskaraz edo gaztelaniaz) eskuratu nahi den ere. Hizkuntza zehazten ez bada, gaztelaniazko zirriborroa emango da.


Nahi izanez gero, konkurtso-zirriborroak zatikatzeko epea ere jakinaraz daiteke konkurtso-egoerak baimentzen dituen izapideetan, hau da, hiru hilean behingo autolikidazioetan (303) edo urtean behingo autolikidazioetan (390).

Zerbitzu horien erantzuna honelakoa izan daiteke:

- Eskaera **OK**: erantzunaren eskemaren url-a, eskaeraren identifikadorea eta zirriborroa erabilgarri egongo den eguna eta ordua.
- Eskaera **ez OK**: kodea eta errorearen deskripzioak euskaraz eta gaztelaniaz.

Sisteman eskaera bat jasotzen denean, lehenik eta behin balioztatu egiten da. Egiaztapen guztiak betetzen badira, eskaeraren identifikadorea eta zirriborroa erabilgarri noiz egongo den kalkulatu da. Erantzun hori bezero-aplikazioak jaso behar du, ondoren zirriborroaren informazioa jaso ahal izateko. Bestela, baliozkotzean ez-betetzearen arrazoia emango da kode eta deskribapen elebidun batekin.

Ondorengo diagramak zirriborro-eskaera baten fluxua erakusten du:



5.2 Zirriborroa biltzeko zerbitzuak

Aldez aurretik eskatutako zirriborroa jasotzeko, izapide bakoitzeko zerbitzu bat dago: BEZaren hiru hilean behingo autolikidazioak (303), erakunde-talde hilerokoak (322) edo urtekoak (390).

Dei guztiek eman behar dituzte zerbitzuak behar dituen datuak eta zirriborroa eskatzeko zerbitzura egindako deian itzultitako **eskaeraren identifikadorea**.


Zerbitzu horien erantzuna honelakoa izan daiteke:

- Eskaera **OK**: erantzunaren eskemaren url-a eta zirriborrarako kalkulaturako balioak.

- Eskaera **ez OK**: aurkitutako lehenengo errorearen kodea eta deskribapenak euskaraz eta gaztelaniaz.

Sisteman eskaera bat jasotzen denean, lehenik eta behin balioztatu egiten da. Egiaztapen guztiak betetzen badira, zirriborroaren informazioa itzuliko da. Bestela, dagokion errorea itzuliko da.

Ondorengo diagramak zirriborro-bilketa baten fluxua erakusten du:



6 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN ZERBITZURAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

BEZaren autolikidazioen zirriborroak eskatzeko eta jasotzeko, BFAk garatutako makinaz makinako web-zerbitzuen plataforma erabiltzen duen web-zerbitzu bat erabiltzen da

Errorerik gabeko erantzun guztietan, **JSON eskemarako esteka** itzultzen da, eta erantzun horren informazio-egitura erakusten du.

6.1 Zirriborroa eskatzea

REST motako web-zerbitzu batera egindako dei bidezko komunikazioak dira, JSON formatuko informazioarekin.

Eskaera-zerbitzuen URLa **https://api.bizkaia.eus/IVA/v1/xxx/borradores** da; bertan, **xxx(e)**k identifikatuko du eskatutako BEZaren autolikidazio-motaren zirriborroa.

Hauek dira xxx(r)en balizko balioak:

- **individual:** hiruhileko/hileko autolikidazioen zirriborroetarako (303).
- **grupos:** erakunde-taldeen hileroko autolikidazioen zirriborroetarako (322).
- **resumenAnual:** urteko autolikidazioen zirriborroetarako (390).

URLaren adibidea, BEZaren hiruhileko edo hileko autolikidazioaren zirriborroa eskatzeko (303): <https://api.bizkaia.eus/IVA/v1/individual/borradores>.

HTTP goiburu batek eta edukiak osatzen dituzte eskaerak, eta ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- **POST** metodoa erabilita egin behar dira deiak.
- Ziuhtagiri elektronikoa erabili behar da.
- Kodeketa-formatua UTF-8 da; beraz, kodeketa horrek onartzen dituen karaktereak-erabiliko dira.



6.1.1 HTTP goiburua

Parametro hauek sartu behar dira eskaeraren **HTTP goiburuan**, balio hauekin:

- **Content-Type** = application/json
- **Accept-Language** = EU edo ES

- **eus-bizkaia-m2m-data** = json edukia:
 - **personalInteresada**: zergadunaren identifikazio-datuak:
 - nif.
 - nombreRazonSocial edo sozietatearen izena.
 - apellido1: pertsona fisikoentzat bakarrik eman behar da.
 - apellido2: pertsona fisikoentzat baino ezin da eman, eta aukerakoa da.
 - **tramitacion**: zirriborroaren izapidea identifikatzeko beharrezko datuak dira:
 - procedimiento: prozeduraren identifikadorea (balio finkoa).
 - formulario: datu-orriaren identifikadorea (balio finkoa).
 - **datosRelevantes**: zirriborroaren zergaldia identifikatzeko behar diren datuak dira.
 - ejercicio: zergaldia hasten den urteari dagokion ekitaldiarekin bete beharrekoa.
 - periodo: zergaldiaren kodea.

Datu horiek zuzentasunez jakinarazi behar dira, modu honetan:

- Pertsona juridiko baten zirriborroa eskatzeko adibidea:

```
{
  "personalInteresada": {
    "nif": "A48991713",
    "nombreRazonSocial": "INDUSTRIAS REUNIDAS"
  },
  "tramitacion": {
    "procedimiento": "1681",
    "formulario": "5038"
  }
  "datosRelevantes": {
    "ejercicio": "2025",
    "periodo": "02"
  }
}
```

- Pertsona fisiko baten zirriborroa eskatzeko adibidea:

```
{
  "personalInteresada": {
    "nif": "99999777A",
    "nombreRazonSocial": "ATILANO",
    "apellido1": "RODRIGUEZ",
    "apellido2": "PEREDA"
  },
  "tramitacion": {
    "procedimiento": "1681",
    "formulario": "5038"
  }
  "datosRelevantes": {
    "ejercicio": "2025",
    "periodo": "02"
  }
}
```

6.1.2 Edukia

Eskaeraren edukian, konkurtso-zirriborroetarako zatikatze-aldiaren berri eman daiteke, konkurtso-egoerak baimentzen dituen izapideetan, hau da, hiru hilean behingo autolikidazioetan (303) edo urtean behingoetan (390).

Adibidez:

```
{
  "fechaFraccDesde": "2025-02-05",
  "fechaFraccHasta": "2025-02-28"
}
```

6.1.3 Erantzuna

Erantzuna HTTP goiburu batek eta edukiak osatzen dute.

HTTP goiburuak hau ematen du:

- **Content-Type** = application/json

Erantzun baten gorputza honako eduki hau duen **JSON** bat da:

- Eskemaren bertsiorako esteka.
- Eskaearen identifikadorea.
- Zirriborroa sortzeko gutxi gorabeherako data eta ordua.

JSON adibidea:

```
{
  "schema": "https://api.bizkaia.eus/IVA/v1/individual/borradores/esquemas/respuestaSolicitud",
  "idSolicitudBorrador": 312,
  "fechaHoraDisponibilidad": "2025-03-28T09:20:35"
}
```

6.2 Zirriborrea jasotzeko eskaera

REST motako web-zerbitzu batera egindako dei bidezko komunikazioak dira, JSON formatuko informazioarekin.

Bilketa-zerbitzuen URLa **https://api.bizkaia.eus/IVA/v1/xxx/borradores/nnnn** da; bertan, **xxx**(e)k zirriborrea eskatzen den BEZaren autolikidazio-mota identifikatzen du, eta **nnnn** zirriborrea eskatzean erantzun gisa lortu dugun idEskaeraZirriborrea da.


Hauk dira xxx(r)en balizko balioak:

- **individual**: hiru hileko/hileko autolikidazioen zirriborroetarako (303).
- **grupos**: erakunde-talde hileroko autolikidazioen zirriborroetarako (322).
- **resumenAnual**: urteko autolikidazioen zirriborroetarako (390).

BEZaren hiru hileko edo hileko autolikidazioaren zirriborrea jasotzeko URLaren adibidea: <https://api.bizkaia.eus/IVA/v1/individual/borradores/312>.

Eskaerak HTTP goiburu batez soilik osatuta daude, ez dute edukirik behar, eta ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- **GET** metodoa erabili egin behar dira deiak.
- Ziurtagiri elektronikoa erabili behar da.
- Kodeketa-formatua UTF-8 da; beraz, kodeketa horrek onartzen dituen karaktereak erabiliko dira.



6.2.1 HTTP goiburua

Parametro hauek sartu behar dira eskaeraren **HTTP goiburuan**, balio hauekin:

- **Content-Type** = application/json
- **eus-bizkaia-m2m-data** = json edukia:

eu_Batuz_IVA_SW_Peticion_borrador_Especificaciones_V1_0

- **personalInteresada:** zergadunaren identifikazio-datuak:
 - nif.
 - nombreRazonSocial edo sozietatearen izena.
 - apellido1: pertsona fisikoentzat bakarrik eman behar da.
 - apellido2: pertsona fisikoentzat baino ezin da eman, eta aukerakoa da.
- **tramitacion:** zirriborroaren izapidea identifikatzeko beharrezko datuak dira:
 - procedimiento: prozeduraren identifikadorea (balio finkoa).
 - formulario: datu-orriaren identifikadorea (balio finkoa).
- **datosRelevantes:** zirriborroaren zergaldia identifikatzeko behar diren datuak dira.
 - ejercicio: zergaldia hasten den urteari dagokion ekitaldiarekin bete beharrekoa.
 - periodo: zergaldiaren kodea.

Datu horiek zuzentasunez jakinarazi behar dira, modu honetan:

- Pertsona juridiko baten zirriborroa eskatzeko adibidea:

```
{
  "personalInteresada": {
    "nif": "A48991713",
    "nombreRazonSocial": "INDUSTRIAS REUNIDAS"
  },
  "tramitacion": {
    "procedimiento": "1681",
    "formulario": "5038"
  }
  "datosRelevantes": {
    "ejercicio": "2025",
    "periodo": "02"
  }
}
```

- Pertsona fisiko baten zirriborroa eskatzeko adibidea:

```
{
  "personalInteresada": {
    "nif": "99999777A",
    "nombreRazonSocial": "ATILANO",
    "apellido1": "RODRIGUEZ",
    "apellido2": "PEREDA"
  },
  "tramitacion": {
    "procedimiento": "1681",
    "formulario": "5038"
  }
  "datosRelevantes": {
    "ejercicio": "2025",
    "periodo": "02"
  }
}
```

6.2.2 Erantzuna

Erantzuna HTTP goiburu batek eta edukiak osatzen dute.

HTTP goiburuak hau ematen du:

- **Content-Encoding** = gzip
- **Content-Type** = application/json

Erantzun baten edukia **JSON** bat da, **GZIP** formatuan konprimitua, zirriborroaren informazio zehatza duena.

Erantzun-zuzenen egitura dagokion erantzun-eskemekin definitu da, eragiketa bakoitzeko.

7 BEZaren AUTOLIKIDAZIOEN ZIRRIBORROEN ZERBITZUEN ERROREEN KUDEAKETA

Atal honetan, puntu bakar batean bildu nahi dira bezeroek BEZaren autolikidazioen zirriborroen zerbitzuen erantzunetan jorratu behar dituzten kasuak, eskaera zuzena izan den ala ez zehazteko, eta, okerra izanez gero, gertatu diren erroreak jaso eta tratatzeko.

7.1 Zirriborroen zerbitzuen erantzuna

BEZaren autolikidazioen zirriborroen zerbitzuei egindako eskaerek erantzun bat itzultzen dute. Eskaera zuzena izan den zehazteko http erantzunaren kodea hartu behar da kontuan.

Eskaera bat okerra bada, eskaera edo bilketa baztertu egiten da.

7.1.1 HTTP erantzun-kodea (HTTP response status code)

Erantzun-kodea **200** bada, eskaera zuzena dela joko da.

Erantzun-kodea **400** bada (Bad request), eskaera ez da zuzena, eta web-zerbitzuaren bezeroak itzuli duen errorea egiaztatu beharko du erantzunean, horren arrazoia zehazteko. Adibidez:

- Eskaera ez dago ondo osatuta, goiburuan parametro faltagatik edo formatu okerra duten datuengatik.
- Negozioarekin bat ez datozen sarrera-datuak.
- Arazoak ziurtagiriarekin.
- Eskaerarekin lotutako datuen egoera.

Eskaera prozesatzean errore ez-logikoren bat gertatzen bada (nullpointer, konexio-errorea eta abar), **500** erantzun-kodea itzultzen da (Internal server error).

7.1.2 HTTP eskaeraren edukia

400 erantzun-kodea duten eskaera okerrekin errorea itzultzen dute HTTP eskaeraren erantzunaren edukian.

8 ZERBITZUAREN DOKUMENTUAK

Zerbitzu honi buruzko dokumentu guztiak **software enpresa laguntzaileen** atarian daude, (https://www.bizkaia.eus/Ogasuna/software/index_empresas.asp?Idioma=CA).

Hauei buruzko informazioa du:

- Azpiegitura komuna.
- Kalkulu-arauak.
- Zehaztapen funtzional eta teknikoak.
- Baliozkotzeak eta erroreak.
- Eragiketen egitura.
- Adibideak.